

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA
EUSKARA ZERBITZUA

17. zkia.

2004ko garagarrila



OPORRETAN BE ZEREGIN ASKO



"ALKARREGAZ BETI EUSKERAZ" KANPAINA

Gure udalek "Alkarregaz beti euskeraz" izeneko kanpaina jarriko dabe abian garagarrian. Kanpainaren helburua euskarearen erabilera sustatzea eta bultzatzea da; izan be, gure udalerrri honeetan euskarearen ezagutza handia dan arren (herritar danek edo ia danek dakite euskeraz egiten), kalean gero eta erdara gehiago entzuten dogu, batez be, gazte eta helduen artean. Kanpaina horren barruan, gutunak eta diptiko informatiboak bidaliko dira etxeetara, eta "Alkarregaz beti euskeraz" esaldiaz serbilletak aterako dira tabernetarako. Halanda be, jakin behar dogu kanpainak berak bakarrik ez dauala balio handirik eukiko, herritarrok geure artean euskeraz egiteko ahalegintxo egiten ez badogu. Hasi gaitzan, ba, alkarregaz euskeraz egiten, merezidu dau-eta!

**UMEEN EUSKAL KANTAK, JOLASAK IKASTEKO IKASTAROA GURASOENTZAT**

Euskararen transmisioan gurasoek berebiziko papera jokatzen dabe, beraiengandik jasoko dabez-eta umetxoek lehenengo hitzak, lehenengo kantak, lehenengo jolasak... Hori kontuan izanda, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek umeen euskal kantak eta jolasak ikasteiko ikastarotxo antolatuko dabe guraso eta gurasogaientzat. Ikastaroa zortzi ordukoa izango da, eta egunak honakoak:

Arrietan: urriaren 8, 15, 22, 29

Gamiz-Fikan: azaroaren 4, 11, 18 eta 25ean

Fruizen: azaroaren 5, 12, 19 eta 26an

V. ARGAZKI LEHIAKETA ARRIETAN

San Inazio egunez ohitura da Arrietan Gaztelugatxeko San Juanera (Donienera) oinez joatea. Tradizio horrerri jarraituta, aurtan be, garagarriaren 31n, herriko tabernan txokolate beroa hartu ostean, goizeko 6retan abiatuko dira Arrietatik Gaztelugatxeko San Juanera.

Urteera horregaz lotuta, argazki lehiaketa antolatu izan da Arrietan azken urteotan. Aurtengo hau V. edizioa izango dogu, eta gaia "San Inazio: Arrietatik Gaztelugatxeko San Juanera" izango da. Argazkiak Arrietako udaletxean aurkeztu behar dira, abuztuaren 27a baino lehen. Asteburu kulturaren barruan (irailak 17,18 eta 19) lehiaketara aurkeztutako argazki guztien erakusketa eta sari banaketa (irailaren 19an) egingo da.

INFORMAZINO TURISTIKORAKO PANELAK

Gure udalerrietan informazino turistikorako panalek jarriko dira; panel horreetan eskualdeko eta udalerrri bakoitzeko baliabide eta bisitatzeko lekuen barri emongo da; horretara, gurera datozen bisitariak herria hobeto ezagutu ahal izateko informazinoa izango dabe.

ANTXINAKO ARGAZKIAK BATUTEKO KANPAINA MEÑAKAN

Guztiok etxean gordeta daukaguzan antxinako argazkiak batuteko kanpaina bateri ekin deusagu. Erretrato horreek era guztietakoak izan daitezke; familia artekoak, jai edota ospakizunetakoak, koadrila, eskola sasoikoak, eleiza ingurukoak (ezkontzak, jaunartzeak...), baserriak, parajeak...

Argazki horreekaz erakusketa polit bat egingo dogu jaietan. Gure kultur ondarea eta historiaren memoria galdu ez daitezkan. Ganera artxibo bat atonduteko asmoa daukagu eta aurrerantzean produktua be eskeini geinkez, berbarako argazki liburu polit bat.

GAMIZ-FIKA

HERRITARRAK HERRITARRAKAZ GOZATUTEN

Aspaldiko ohiturea izan da Fikan, Asentzinoak pasau eta handik aste bira herri bazkaria egitearena. Ohitura onak ez dirala galdu behar-eta, urte biko etenaren ostean, barriro heldu gura izan deusie fikarrek herritarrak bazkari eder baten inguruan batzearen ohitureari, herritarrak herritarrakaz biltzearen ohitureari... eta asmatu be egin dabe, bete-betea, gainera; izan be, joan dan bagilaren 13an fikarrek egin eben herri-baz-

kari horretan, hainbat eta hainbat lagun bildu ziran frontoian, eta dan-danek, umeek zein helduek, ederto batean pasatu eben eguna, bazkari ederraz aparte, bazkalosterako be hainbat kontu antolatu ebezan-eta, besteak beste, puzgarriak ume eta gaztetxuentzat, bertsolariak eta soinua. Egun horretan fikarrek, herrian jarri eben pankartan esaten euskuen lez, "Fika bizirik" dagoa-la erakutsi euskuen.



Herritarrak herritarrakaz egoteko eta gozatuteko aukerea ez da, baina, oraindino amaitu Gamiz-Fikan; izan be, San Antolinetan Gamizek hartuko dau txandea, eta, urtero egiten daben lez, aurten be, hainbat ekintza antolatuko dabez, esate baterako:

irailaren 3an tute eta briska txapelketa egingo dabe.

irailaren 4an, herri-bazkaria eta, zelan ez, holango okasinoetan sekula falta ezin dan erromeritxoa be eukiko dabe.

Ondo-ondo pasau guztiok!

ARRIETA

EDURNE PASABANEGAZ BERBETAN

Arrietako Udalak maiatzean emon eutsen hasiera aurtengo bideo emanaldiei.

Maiatzeko emanaldi horretan Edurne Pasaban mendigoizalearen "Aztarnak" dokumentala ikusteko aukerea izan genduan, ikusteko eta baita ikusitakoaren gainekoak egilegaz beragaz komentatzeko aukerea be.

Edurne Pasaban gurean zala-eta, Erdu Pressekoek alkarrizketatxo bat egiteko aprobetxatu genduan. Hona hemen alkarrizketatxo horretan mendigoizale ezagunak kontatu euskuza-netako batzuk:

-Erdu Press: Eta noiztik jatortzu mendirako zaletasuna? Zelan piztu jatzun zaletasun hori?

-Edurne Pasaban: Txikitatik jatorta niri mendirako zaletasuna, eta gurasoengandik jaso dot gehien bat: oporretan-eta gurasoekaz mendira joaten nintzan. Gero, handitxoagoa nintzala, 14 urtegegedo, eskalada egiten hasi nintzan, kurtsilloak egiten...

-Erdu Press: Edurne Pasaban beti lotu izan dogu mendiagaz baina, mendiaz aparte izango dozu, beharbada, beste zaletasunen bat, ezta?

-Edurne Pasaban: Bai, txirrindulan ibili, triatloia be lau-bost urtetan egin dot...

-Erdu Press: Noiz pasatzen da mendigoizale bat inguruko mendiak egitetik munduan zeharreko menditzar horreek egitera? Zuk zeuk urte asko behar izan dozuz? Zeintzuk izan dira bidean aurkitu dozuzan oztopo edo zailtasunik aipagarrienak? Emakumea izateak lagundu ala kalte egin deutsu? Edota horrek ez du zerikusirik euki?

-Edurne Pasaban: Hamalau-hamabost urtegegedo kurtsilloak egiten hasi nintzan, hamazazpi urtegegedo eskalatzen... beti ni baino jente helduagoagaz alkartu izan naz, eta horrek aukerea edo bidea emon izan deust apurka-apurka helburu zailagoak lortzen joateko. Nik neuk ez dot emakumea izateagatik oztoporik aurkitu, beti lagun artean ibili izan naz eta laguntza handia emon deuste aurrera



egiteko. Oztopo nagusia dirua izan da, sponsorrak jasotzeko orduan emakumea izateak, beharbada, lagundu ahal dau, baina nire kasuan ez da holan izan. Emakume izan zein gizon izan gai zarela erakutsi behar da. Gogor entrenatu ezkerro, berdin da gizonezko zein andrazko izan, eta ni neu espedizioetan-eta emakume bakarra izan arren, kideek berdin tratatu izan nabe beti.

-Erdu Press: Munduko hainbat lekutan egona zara, leku horreetako mendiak ondo baino hobeto ezagutuko dozuz, baina izaten dozu hango kultura, hango jentearen bizimodua, arazoak...ezagutzeko aukerarik/gogorik?

-Edurne Pasaban: Bai, kontua ez da mendia igo eta kito, beste lurralde batzuetako jente eta kulturak be interesatzen jataz, eta mendiak bazter askotako jente, kultura... ezagutzeko aukera emon deust.

-Erdu Press: Mendigoizaleak naturari begirune handia deutsola, ingurumenagaz-eta arduratuta dagoala esan ohi da, zein da zure iritzia?

-Edurne Pasaban: Bai, bai, kezkatzen gaituen gai bat da. Sarritan kritikatu izan jaku inguruak zikin ixten doguzala-eta esanez, baina nik esango neunke, oro har, mendizale guztiok ahalegintzen garela ingurua zaintzen.

-Erdu Press: Euskaldunoi beti gustatu izan jaku mendia, zaletasun handia dago Euskal Herrian. Dinoenez, Katalunia aldean be bai. Non gehiago? Zeintzuk dira onenak?

-Edurne Pasaban: Euskal Herrian harrobi handia dogu. Mendizale onenen artean beti dago euskaldunen bat. Euskaldunok espedizio asko egiten doguz, kultura bat dago; mendi inguruan bizi gara eta hori igarri egiten da, afizino handia dago. Katalanen artean be afizino handia dago, espedizioetan-eta katalanak be egoten dira, tira, lurralde guztietako jentea egoten da, baina gehienak euskaldunak izaten gara, euskaldunok gara gehien mugitzen garenak.

FRUIZ



EUSKAL ASTEBURU KULTURALA

GARAGARRILAK 23, BARIKUA

19:00retan: TXOTXONGILOAK: "Euskal ipuinak" antzezkizuna.

GARAGARRILAK 24, ZAPATUA

22:00etan: ERROMERIA "ATARRABI" taldeagaz.

GARAGARRILAK 25, DOMEKA

13:30etan BERTSO-TRIKI-POTEOA tabernarik taberna

GARAGARRILAK 30, BARIKUA

KONTZERTU GAUA:

23:30etan:

- SEI URTE
- KEN 7
- LOR
- AMAIUR

GARAGARRILAK 31, ZAPATUA

23:30etan: -NUN
-URG ABE

ABUZTUAK 5, EGUENA

17:00etan BRISKA TXAPELKETA

ABUZTUAK 6, BARIKUA

SALBADORE EGUNA:

12:00etan MEZA
12:30etan FRUIZKO ABESBATZA

15:00retan

HERRI BAZKARIA
BERTSOLARIAK
ERROMERIA "LUHARTZ"
taldeagaz

ABUZTUAK 7, ZAPATUA

16:00retan MUS TXAPELKETA

ABUZTUAK 8, DOMEKA

NEKAZARI AZOKA

ABUZTUAK 9, ASTELEHENA

UMEEN EGUNA:

Arrastian MARSEL MAGOA

ABUZTUAK 10, MARTITZENA

SALLEBANTE EGUNA:

12:00etan MEZA San Lorenzo ermitan
13:00etan TRIKITILARIAK

FRUIZKO JAIK

MEÑAKA POZIK GAGOZ

Udaren hasiereagaz batera ikasturte osoan zehar egindako lanaren gainikusia egin gura dogu oraingo hontan. Kultura sailetik, eta hainbat lagunen ezinbesteko laguntzagaz batera, kultura eskaintza eta jarduera desbardinak aurrera atera doguz. Honeek ekintzok herriko eguneroko alkarbizitzea biztuteko aupada garrantzitsua izan dira, baina aldi berean aupada gatxa. Hau guztiau martxan ipintea behar handia izan da; alde batetik azpiegitura eta baliabide falta izan dalako, eta bestetik esperientziarik gabe herritar ezbardinai zuzendu behar izan deutseguzalako ekintzak. Halanda be herritarrek erakutsitako poztasuna eta harrera ona erantzun ezin hobea izan da egindako beharrentzat.

Jarduerak programa jakin eta helburu zehatz bateri erantzun daion arrazoi bateratu batez lotu gura izan doguz. Beraz gizarte eta kultura mailan bultzatutako ekintzek programan ageri dan lehenengo mailako helburua izan dabe, hain zuzen be bertoko nortasunaren garapena.



Esanguratsua da haur eta helduai zuzendutako jota ikastaroak izandako emoitza positiboa.



Umeai olgeta zaharrak eta gure aitita-amomak jaietan kantetan ebezan kantuak erakutsi jakez. Herritarrek antxina dantzetan eben jota ikasi dabe ikasketa berezirik gabe. Adinekoek euren gurasoek dantzetan ebena berreskuratu dabe, esfortzu handiagaz izan bada be. Zurtz eginda itzi gaitue!!



Umeentzako pilota eskola be apostu ederra izan dogu, euren zaletasuna garatu ahal izan dabelako ezelako genero bereizketarik gabe. Era berean jokoaren iraupena ahalbideratu gura izan dogu.

"Zapatuak Liburutegian" deritxan udako programaren bitartez, herriko txikerrenak garagarrileko goizak begirale aditu bategaz batera pasau dabez.

Kanta zaharrak kantetako barikuetako lotuguneak, euskara klaseak, "gorputz heziketa" programa, kultura urteerak, betiko jaien ospakizuna eta galdutako beste zenbaiten berreskuratzea (Santa Ageda, Done Joane...), e.a. Honeek danak denbora gitxian burututako pausu handiaren barri emoten deuskue.

Eskerrik asko danai eta eutsi lanari!



UMEEN TXOKOA

Eta oporretan, zer egingo dozu?




**JURDAN
AURTENETXE
(FRUIZ)**

Piszinera joan, lagunekaz jolastu, astelehene eta eguaztenetan ludotekara joan, martitzen eta eguaztenetan udako joko eta kirolak, bizikletan ibili, esku pelotan jolastu, raketagaz frontenisera jolastu... eta herriko jaietan ondo pasau.



**JONE JUIZ FERRONI
(ARRIETA)**

Uda honetan, hasieran nire amarekin Cantabriara joango naiz nire gurasoak lanean dauden bitartean, eta gero, denok batera Cadizera joango gara, gero hemen egongo gara, Fruizko igeritokian, hondartzan eta abuztuan Bilbora barraketara, (diru pillo bat gastatze-ra).



**MAIALEN ARTETXE
(MEÑAKA)**

Ugerlekura joan, jolastu, Meñakako Udalekuetara joan, ibilaldiak egin, eta ondo pasatu barretan. Meñakan antolatu daben Udalekura egunero joango naz. Aste bat Briñasen egon naz eta ederto pasatu dot. Meñakako umeak ibilaldi batzuk egingo doguz Gipuzkoako baserri bitara: gaztaiak eta albarkak zelan eginten diren ikasteko. Ugarlekuan ibili, herriko jaietan parte hartu, eta denbora guztian ondo pasa.



**GOIAZ ELGEZABAL
(GAMIZ-FIKA)**

Oporretan danetarik egingo dot:
 - Etxeko animaliak zainduko dodaz:txakurra (Laika dauko izena) eta zaldia (Elur).
 - Ikastolako etxeko lanak be egingo dodaz, egunean orrialde bat edo bi.
 - Denpora ona egiten dauanean plaiara eta piszinara joango naz, eta neba kanpamendutik datorrenean, eta nire gurasoek oporrak hartzen dabenezan, Galiziara joango gara oporretan; eta handik etorrita izekoren etxera joango naz Plentziara egun batzuk pasatzen.
 - Nire laguntxuek bezala inguruko herrietako jaietara joango naz.

Eta holan pasatuko dot uda.

DENPORA PASAK


HIZKI SALDA Hizki saldan Hondartza daukien Euskal Herriko 7 herri topaiko dozuz.

B	A	K	I	B	O	M	T	A
A	N	G	E	L	A	I	U	S
K	G	R	M	P	S	A	X	T
U	Z	A	R	A	U	T	Z	E
N	L	E	O	H	N	O	B	Z
R	U	G	T	O	E	I	U	A
M	I	A	R	N	T	Z	E	R
I	S	P	A	D	U	A	T	A
A	N	R	N	A	E	X	O	U
R	U	E	B	R	U	J	H	N
R	M	U	Z	R	T	M	U	D
I	B	A	K	I	O	U	M	I
T	A	N	E	B	I	N	U	P
Z	I	G	J	I	X	D	R	U
E	T	E	M	A	T	A	U	L
L	N	L	I	N	P	K	S	O
I	E	U	A	G	U	A	T	X
Z	A	R	R	E	T	Z	O	I
E	N	M	R	L	E	D	H	P
K	R	U	I	A	S	X	T	U
U	E	T	S	O	P	E	L	A

Erantzuna: Zarauz, Bakio, Angelu, Mundaka, Miarrizte, Sopela eta Hondarribia.

(Denpora-pasa honeek Mantangorri gehigarritik hartu dira)

LABIRINTOA



ESAERA ZAHARRAK

-Uztailleko borronbonbon, ez beti goxo baiña on.
(Atsotitzak, Gotzon Garate)

-Uztailleko eguzkiak, ondoko ardoari indar.
(Atsotitzak, Gotzon Garate)

TXISTEAK**SAGARDOTEGIAN**

-Eta labana, non dago labana?

-Labana? Non egongo da, ba? Kuban!

(Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta)

BIZKORRA

-Estatu Batuetan zer dira pertsona bizko-
rrak?

- !!!!

-Turistak!

(Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta)

ZENBAKI HONETAN
PARTE HARTU DABE:

ZURIÑE GOTI
MAITE TORREALDAI
ELIXABETE URIARTE

San Juanak

- Surik edo eitte san, sue eittia kostunbria da San Juanatan?

- Bezperan sue eitte san, San Juan besperan. Da gero sue be bai, ta ariñau tzolakas noberan soloari bueltia emon be bai tte.

- Kanteu eitte senduen akordetan sara sein dan edo?

- Kanteu eitte gendun:

"San Joan, San Joan,
sapoak eta sugeak erre,
garixek eta artoak kaixan gorde
biba San Joan etzian eta kanpoan"

Abesti hori hainbat modutara kantatzen da. "Fikako berkakera" liburuan beste aldaera hau be jaso da:

"Geur dala, bixer dala Doniene,
etzi San Joan bixamune,
San Joan dabill soloatan,
artoak eta garixek kontzerbetan,
sapoak eta suguyak erre,
gure soloan sorgiñik es,
badago be erre dires."

(*Fikeko berbakera, Sorkunde Azketa Rike*)



ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza Nagusia